



Lurpetik

AMETS ARANGUREN MADDI LASA

La Rue du izena orain arte Nebula izandako Iruñeko tabernak. Modernitoen garito horietako bat, non noizbehinka *jurruak* ere topa daitezkeen edota bestelako tribu urbano batzuk ere. Denetarik elkartu da ostiral iluntzez tabernako beheko pisuan. 25 bat metro karratu eta hiruna pertsona metro karratuko.

Duela ia bost urte ikusi nuen lehen aldiz Lurpekariak taldea zuzenean, Katakraken, Nebula zenetik metro eskasetara. Oker ez banago, bi bateria, bi kontrabaxu, ahotsa eta tronpeta. Gaurko formazioak bateria eta kontrabaxu bana, berdin ahotsa eta tronpeta, eta tronboi baten berritasuna. Hasierako agurra eman du bakoitzak nahi izan duen doinu eta neurrian eta horrekin hasi gara lurpean sartzen, hasi da belarri garbiketa.

Martxan da soinu elkarrizketa. El-karrizketa baino, lasterketa ematen zuten hasierakoak, bata bestearen atze-

tik segika. Baina lortu dute elkarren ondoan jarri eta begiak altuera berean izanda hizketan hastea. Unean uneko testuinguruari erantzutea eskatzen du inprobisazioak, musikari hauen jarduean presentzia handia duen jolas horrek. Baina, kasu, Hemsy de Gainzak esaten duen bezala, inprobisazioak dakarren askatasunak ez du kontsignarik eza suposatzen (ongi dakite hori hiriko beste txoko batean kontzertua eskaini berritan etorritako Peru Galbete eta Ibor RG-k ere). “Ez dakizue zer pasako den, baina guk are gutxiago”, bota du hasieran musikarietako batek. Libre edo ez hain libre emanikoez gain, izan dira ere kantu poperoago batzuk. Leku-txo bat egin diote, besteak beste, Ander Garcíaren *Liliak ihes* kantu ederrari (ez baduzue ezagutzen zoazte inmediateki entzutera mesedez, faborez, otoi eta arren) eta errekonozitu ahal izan ditugu bestelako melodia tradizional(ago)

LURPEKARIAK-EN KONTZERTUA

NON: La Rue taberna (Iruñea)

NOIZ: urtarrilak 27

(tradizional esaten ahal dut...?) batzuk, jauziren bat tarteko.

Kontrabaxua ttun-ttun bihurtu da tar-te batez eta hizkuntza frankoan mintzatu da Ion Celestino tronpetista, “baina sosak eskatzeko bakarrik”, beste dena “en vas-cuence”. Onomatopeiak, afinazio tenpe-ratutik urruntzeko saiakerak eta esaldi eder batzuk Nerea Erbitiren ahotsetik at. Hauek dira iazko Bertsolari Txapelke-ta Nagusiko sintonia egin zutenak. Igual orain ulertzen da zerbait gehiago...

Bilaketarako talde gisa sortu zen Lurpekariak, kanporako baino gehiago barrurako agian. Baina sartu nahi duen guztiari da irekia barrualde hori eta zenbat ikasten den tarteka horra burua agertzearekin bakarrik. Motz egin zait gaurkoa eta kontzertuaren itxierako hitzak buruan egin dut etxerako bidea.

Erlojuari gelditzeko, eguzkiari ez sar-tzeko eskatuko diot, gaur-ak ez daitezen bihar-etan bukatu. ●